


Bat edo hiru diskoa aurkeztuko dau Amorantek Lemoan

12. orrialdea

Bihotz anpuluak zuzenean

Bihotz Gorospek Youtube kanala sortu eban *Bihotz anpuluak* izenpean bersinoak eta berak sortutako kantuak zabalduko. Aspaldi honetan kantu horreek eta Itziar Zabala eskalatzailearen gaineko *Amagana* dokumentalerako egindako kantuak hainbat kontzertutan jo ditu. 13. orrialdea



Onditz Iturbe lasterkari igorreztarrari alkarrizketea kiroletan

11. orrialdea

Seirehun lagun batu ziran espetxe politikea aldatuteko eskatzeko


Eskualdeko herri guztietan egin ziran manifestazioak edo-eta alkarretaratzeak.

Urtailaren 8an, Sarek deituta, Arratia, Ubide eta Zeberion, Euskal Herriko dozenaka herritan eta auzotan lez, mobilizazioak egin ziran salbuespen legediagaz amaituteko eta euskal preso, igeslari eta deportaduen eskubideak aldarrikatzeko.

Espetxe politikeari jagokonean, aldaketearen lehen zantzuak ikusten dirala dinoe antolatzaileek eta oingo urtean espetxe politika barri bat oinarri izatea espero dabe. Hori ezinbestekotzat jotzen dabe alkarbitza eta bakerako. 5. orrialdea



Langabezia tasa %8,3koa da eskualdean



Errota Fundazioak egindako txosten baten arabera, COVID-19ak eragindako itxialdiaren eraginez, langabetu kopuruak nabarmen egin eban gora 2020ko udagoien arte, baina datuak hobetuten joan dira, aurreko egoera hobetu arte. 2021eko abenduan, 611 ziran lan barik egozanak; 284 gizon eta 327 andra, 2020ko urtaillean baino 48 persona gitxiago. 8. eta 9. orrialdeak

BEDIA

Bediako ondarearen gaineko bigarren liburuxkea banandu da

Bedia oinez ezagutzen. Elexaldetik Barroetara izenburua dauka Labayru Fundazioak argitaratutako Bediaren ondarearen gaineko bigarren liburuxkea. Hiruk osotuten dabe bildumea eta hirugarrena aurten egiteko asmoa agertu dabe Labayrutik. 7. orrialdea

ZEANURI

Zeanuriko bertso saioa urtailaren 23an izango da

Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga, Jon Maia, Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariak egongo dira Zeanurin eta Eñaut Intxaurragak jardungo dau gai emoile lanetan 18. edizino honetan. 12. orrialdea

BEDIA

1960ko hamarkadako sexu abusu kasua ikertuko dau eleizeak

El Pais egunkariak Espainiako Eleiza katolikoak 1960 eta 1990 artean adin txikikoei egindako sexu abusuaren zerrenda bat emon eban jakitera. 251 kasu salatuten dira, tartean, 1964 eta 1966 artean, Bediako San Joan Batailatzailaren eleizan gertatutako kasu bat. Bilboko Eleizbarrutiak ikerketa bat zabaldu dau eta edozein kasuren barri euki leikien personei Batzordeagaz hartu-emonetan jartzeko eskatu deutse. 2019ko garagarrietik Eleizbarrutiak adin txikikoen babeserako eta sexu abusuaren prebenzinorako Batzorde bat dauka. 7. orrialdea

begitu 18. urte

arratia · ubide · zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako 2022an egin zaitez Begitu-lagun! kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Literatura txokoa

UHARTE BAT VENUSEN

Xabier Amurizak aspaldi aitortu eban bera gusturen idazle lane-tan ibiltan zala, nahiz eta arrakas-tarik izan ez. *Uharte bat Venusen* liburuan, gizarte zibilizadueneko gizakiek uharte bat aurkitzen dabe, eta bertan beste gizarte aurreratu bategaz topo egingo dabe. Gizarte hori oso desbardi-na izango da kultura aldetik, baita darabilten hizkuntzan —euske-ran— be. Eta hor sortuko da talka. Eta talkagaz batera, kontraesanak.

Amurizak uniberso propioa ondu dau nobelan, berak mun-duan daukan egotereagaz batago datorrena. Aterpea bilatu dau, hemengotik alde egiteko beha-rrak eraginda, akaso. Idazlearen hainbat kezka agertzen dira la-nean, eta euren artean, zelan

ez, hizkuntzaz —euskeraz— bere ibilbide guztian zehar egin dituan gogoetak.

Xabier Amurizak idazkera imi-taezina dauka. Labur jotatzen daki, bizi eta kartsuki, baina dir-dira berezia dauka luze eta sakon jotatzen dauanetan. Gertaera esanguratsu zein xumeagoen deskribapen oso-osoak, gogoe-tarik azaleko eta sakonenak, giza izakerearen gaineko haus-narketak, edota bizitza eta bizi-tzaz haragokoak —hizkuntza txiki baten zehazki zailak idaztekoak diranak— oparo eta luze-luze eta zabal islatzen ditu. Eta literatur balioaz harago, nobela baktotxean ditu gordeak izatea merezi daben hainbat esaldi gogoangarri.

Aspalditxo ekin eutsan bideari

jarraikiz, aditza soildu edo trinko-tu beharraren auzia azalduko dau nobelan, zibilizazio biek darabil-ten hizkuntzen arteko desbardin-tasun agerikoenetako bat izango da-eta. Hiztegiari jagokonez, euskaldun gehienok barruan da-roagun sarjentu garbizaleak de-bekatzen deuskuzanak erabiliko ditu, beti legez, eta ezelango kon-pleju barik: "inkognita", "deboratu", "inoportuno", "sintzeritate"... Amurizak esan eban, oin dala 15 urte, euskaldunok 20.000 berba falta genduzala, eta hiztegia "des-kojonauta" geunkala lar garbizale jotatzen gendualako. Eta aitatu guztiez gain, sintaxia bihurritzeko, edo hobeto esanda, errazteko eta hari distira aterateko, egun-doko gaitasuna dauka.



Xabier Amuriza

Uharte bat Venusen

Autoedizinoa, Erroteta 2021

180 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112
Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urtailaren 17tik 23ra
Rodríguez Martínez, Iñigo. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154
22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Urtailaren 24tik 30era
Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305
22:00etatik 09:00etara
Gutierrez. Amorebieta-Etxano.
Urtailaren 31tik zezeilaren 6ra
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057
22:00etatik 09:00etara
Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org
Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea 94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net
Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543 / info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunean orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Bizkaia-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorre. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.
Gasteiz-Bilbo
Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik. Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Telefonoa:** 94 673 90 13.
Helbide elektronikoa: begitu@begitu.eus
Webgunea: www.begitu.eus
Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus
Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Banaketea: Iraia Herrero (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Garazi Santos (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Izail Perez Junkera (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale. **Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.
Facebook: [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/BegituAldizkaria). **Twitter:** [@BegituEus](https://twitter.com/BegituEus). **Instagram:** [@begitu.eus](https://www.instagram.com/begitu.eus)
Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea. Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: *begitu@begitu.eus* helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Aner eta Leire zinematik urten dira. Aner etxera joateko unean, Manu, Leireren bikotekide ohia, agertuko da. Aukera aproposa Anerrek etxera alde egiteko eta aukera aproposa, ganera, Leire Manu berreskuratuten ahaleginduteko.

Aner: Tíre, bañoana etxera, berandu dona eta!
Leire: Etxera? Ez dok gure lehenao zerbeza bat hartu ala?
Aner: Ez... (Atxakieren bat topau gurean) kantsaute ñaona oso-osoa.
Manu: (Bat-batean agertu de) Leire? Ze habil hemen ba, neska?
Leire: Manu! Aspaldiko!
Aner: Aupa! Beitiñe! Badekoña nogaz joan. Banoa, agur!
Leire: (Amore emanda.) Agur bai! Tíre, Manu, te hi ze? Karu jaok hi ikustea!
Manu: Ez, ez. Donostin ñengonan ikisiten...
Leire: Eta ze, gusture?
Manu: Bai, sano... Aurton amaitan jonazat ikasketak, ta gogotsu ñabiñe ikisten hasteko.
Leire: Ene, poztuten nok! Nik laster selektibidade ein behako joat... baia ondiokarren etxakiat ze karreratan sartu.
Manu: Lasai, hori be etorriko dona. Hi, portzierto, zetan habil papau horregaz?
Leire: Ba egie esan, ez jekoat bape arrazoirik beragaz ez ibilteko, lagune dok eta. Penea emoten jostek ez dalako gugez lotu zerbezea hartzean.
Manu: Bai ala? Zelan ba? DBHn ez zintzien bape ondo moldatute...
Leire: Ez zoan horrenbesterako, hi; arean xelebrea badok, baia zintzoa be badok. Kariñue jeukotsoat.
Manu: Hik jakingo dona. Bestela, hi zelan habil? Badekona bikoterik edo lagun berezirik?
Leire: Hik ze pentsetan dok ba! Ez doat esango! Galdetutea be... Hori dok hire problemea... dana jakin gure dok.
Manu: Hi, lasai, ibili hai babalasto horregaz gure badona, baia nigez xuabe.
Leire: Bai, barkau, arrazoie dekok. Eta? Hik badekok bikoterik?
Manu: Nik, ba... tire... beno... Ontxe ñatona, tabako bile ñoana.
Leire: (Bere buruen). Zirrin horek! Oingoan be hanka ein jok madariketuek!

ERETXIA

Pasaporte segregatzailerik ez, eskerrik asko!

ASKE BIZI ARRATIEN

Badira ia urte bi birusaren eta horren atxakian hartutako neurrien kalteak sufriduten gabizala. Hasikera baten txertaketea, kalte guztien erremedio moduan saldu euskuen, baina denporeak erakutsi dau guzur galanta izan dala, gaur egun badakigulako txertoak ez dauala funtzionetan gaixotasunaren transmisioa komunitarioa gelditzeko.

Danoi sano luze egiten jabilkun denpora tarte honetan, gure gobernu eta agintariek, hainbat oinarritzko eskubide urratu ditue, azken zapalketea, Covid pasaportearen inposaketea izan da. Pasaportea ezartzeagaz, eskubide konstituzionalak urratzen dira, baita Datuak Babesteko Legea eta Pazientearen Autonomiari Buruzko Legean jasotako eskubideak be, beste batzuen artean.

Pasaportearen inposaketea ez dala osasun neurria, Jose Luis Quintas Euskadiko Osasun Sailburuordeak be aitortu eban urrietan Radio Euskadin, argi eta garbi azalduz: *"El certificado QR... Esto es una medida con fines exclusivamente cívicos, no sanitarios... insisto, no es un tema sanitario... es un tema cívico... no tiene nada que ver con la salud"*.

Aztiker soziologia ikerguneak, EAEn egindako inkesta baten arabera, herritarren %74 covid ziurtagiria eskatzearen kontra dagoz.

Pasaporteak ez dau birusa frenatzen, jentea txertoa hartzera behartzeko neurri totalitario eta antikonstituzionala da. Pasaporte barik bizitza soziala eta kulturala ia ezinezko egiten da eta mehatxupe horretan, jente askok, gogoz kontra bada be (eta batzuetan bere osasuna arriskuan ipinita), txertoa hartzea onartu dau, zigor gogor hori ekidin eta gizartean bizi ahal izateko.

Pasaporteak diskriminazioa gogor bateri zabaldu deutso bidea

eta oin badagoz EAEn bigarren mailako herritarrak, ez daukienak besteez dituen eskubideak. Jada, diskriminazioa eta segregazioa hori gabiz sufriduten gure herritan eta gure azaletan. Herritar batzuei, gure herrietako eraikuntza publikoetara sarrera debekatzen hasi dira (kiroldegietan, kultur etxeetan...). Hainbat gurasok adin txikiko seme-alabakaz kiroldegietako aldageletara sartzeako debekua izan dabe. Lau urteko umetxo bat, ugerlekuko ikastarora sartu barik geratu behar da gurasoei beragaz aldageletara joatea galazoten jakielako? Hori normala da? Kultur etxeetan, hainbat gaztek eta helduk euren osasunerako eta garapenerako onuragarriak diran ikastaroakaz segiduteko arazoak ditue, beste hainbesteri, aisialdirako, hau da, osasunerako mesedegarri diran kultur jarduerak debekatu jakiez...

Guretzat benetan kezkarria da zelango obediencia mailara heldu garan ikustea. Gizarte moduan onartuko dogu, osasun neurria ez dan covid ziurtagiri segregatzailea, jakinda gainera, herritarren %74 kontra dagoala?

Pasaporte honen inposaketeagaz hainbat lege hausten dira eta oinarritzko eskubideen kontra doa. Baina badakigu, erregimen totalitario eta segregazioa politikei aurre egiteko bidea erresistentzia kolektiboa dala eta erresistentzia kolektibo hori norbanakoaren ekintzakaz osatzen dala. Hau holan, pasaporteari boikota egin eta herritarrok biltzeako eta antolatze sasoia da, gure oinarritzko eskubideak ezetu eta erabilteko sasoia, alternatibak eregit eta desobediencia bake-tsua eginez. Osasuna, askatasuna eta eskubideen alde!

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKUEUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:
<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



UNAI SANTOS

Zientzia-fikzinoa
eta komediaren
artean

Bestela bizi ginan oin dala justu urte bi. Ordutik hona gauza asko aldatu dira gure eguneroko bizimoduan eta gauza asko galdu doguz bidean. Errealidade barri batera ohitze-agaz batera, berba eta termino arraro ugari ikasi behar izan doguz. Asko eta asko pelikula batetik ateratakoak emoten dabena: "SARS-CoV-2", "antigeno", "kurba epidemiologikoa", "itxialdia", "alarma egoerea"... eta ia-ia konturatu barik normaltasun osoz erabiltzen doguz kalean, tabernan edo familia artean. Azkenetariko bat "omicron" izan da. Ez deustazue esango urruneko planeta batetik datorren espaziontzi baten izena emoten ez dauanik? edo *Blade Runner* zein *Matrix* moduko pelikuletan agertu daiteken personaiaren bat? bale, ados, komentario zinemazale *freaky* hori alde batera itxiko dogu, baina ez dago dudarik oin arte bakarrik zientzia-fikzinozko peliku-

letan entzun eta ikusten genduzan berba eta egoeretara ohitu behar izan garala. Nahi eta nahi ez.
Momentu honetan, mundu mailako pandemia honen azken txanpan ei gagoz. Edo hori esaten dabe behintzat adituek. Ha-ta guzti be, honezkero oso gatxa da esaten deuskuena sinistea. Izan be, pandemia honek "infodemia" (hara, beste berba barri bat) egoera batera eroan gaitu: informazio bonbardaketa itzela jasoten dogu alde guztietatik. Telebistan, interneten, kalean... Zarata, zarata informatibo ugari, eta benetako datu fidagarri eta egiaztatu giti. Holan oso gatxa da bereiztea zer dan egia, zer dan erdi-guzurra eta zer interes hutsa. Gainera, pandemia honen aurrean, 2020ko martiko heritarrak eta gaur eguneko ez da bardina, ez gara bardinak. Gero eta jente gehiago nekatuta dago, haserre, aspertuta, nahastuta. Azken baten, osasuna eta interes ekonomikoaren arteko balantza, samitan argi ikusi izan da balantza horrek zein aldetara jo izan dauan, zoritxarrez. Eta hori giti balitz, azkenaldian hartu izan diran zenbait ebatzi eta neurri, zientzia-fikzinoetik baino, komediatik hurrago dagoz.
Adituen arabera, beraz, pandemiaren amaiera gertu dago. Hala izan bedi. Urtea amaitu orduko, besteak beste, bildumik bako besarkada bat, segurtasun protokolorik bako eskola egun bat edo debekurik bako herriko jai batzuk biziteko aukerea izan daigun. Aa, eta komedia edo zientzia-fikzinozko pelikularik ikusi gura baldin badogu, zinema aretoan izan daitela bakarrik eta, posible bada, maskara barik, mesedez.

ZERTZEAN



AMAIUR SANTOS



BEGI TXINDORRA

Suertedunak gu, urte-sasoiak dituan latitude baten bizi garanok! Latitude honeetan, paraje bera desbardina da urte-sasoi bako-txean eta edertasunak zenbat arpegi edo zenbat modu dituan erakusten ditu. Bai, ederrak dira beste urte sasoietakoa kolore ugaritazuna, baina baita dana estaltzen dauan edurraren zuria be. Ederra da beste sasoi batzuetako oparotasuna, baina baita neguaren esentzia apala be. Gitxiago da gehiago. Mendia, zerua, argia, edurra... besterik ez. Eta hori be ederra da.
Areatzakoi Ibai Milikuak bialdu deusku argazki hau. Udako argazki lehiaketara egiten dogun moduan, neguko be egiteko proposatuz, neguko momenturik onenak be konpartidu daitezke-eta beste irakurleakaz, berak egin dauan moduan. Ez da idea txarra. Emongo deusagu bueltatxo bat.





Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inaustaketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com





agoa
hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

**Ortodontzia
Implanteak
Estetika**

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulu: 901
R.P.S. 21/06

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Eusko Jaurlaritzak alarma egoeretan ipinitako isunak itzultzen hasiko da datorren hilean

Espainiako Konstituzino Auzitegiak, COVID-19a zala eta Espainiako gobernuak indarrean ezarri zituan alarma egoera biak, 2020 eta 2021ekoak, konstituzinoaren kontrakoak zirala ebatzi ostean, ipinitako isunak oinarri barik geratu ziran.



Erredakzioa

Hori dala-ta, Eusko Jaurlaritzak ipinitako isunak itzultzen hasiko da zezeilaren 1etik aurrera eta ar-tibau ditu tramitetan egozanak. Guztira 8.392 isun dira eta itzuli beharreko diru kopurua, 2,5 miloi euro ingurukoa da.

Pagautako dirua errekupe-re-tako Eusko Jaurlaritzak galdetegi bat ipini dau www.euskadi.net bere webgunean.

Omikronek protokoloak aldatu

EAEn hamabi urtetik gorako po-pulazinoaren %92k txertoaren dosi bi hartuta daukaz, baina COVID-19a inoz baino gehiago zabaldu da omikron aldaerea dala eta, atzen hilabetea intzi-dentzia 7 aldiz biderkatu arte. Atzen asteetan ospitaleratuek eta hildakoek be gora egin dabe.

Hori dala-eta, ezinezkoa da osa-sun sistemearentzat kasu guztiak jarraitutea. Horregaitik, sintoma bakoei PCRak egiteari itxi deutso Osakidetza eta etxean antigeno test bategaz positibo emon ezke-ro baina sintomarik izan ezean edo sintoma arinak euki ezke-ro, horren barri ez emotea aholkatu dau Gotzone Sagardui Osasun sailburuak Osakidetza gehiago ez tensionetako eta kasu zaur-garrienei arreta hobea emeteko. Positibo baten kontaktu estu di-ranek be ez deusie horren barri emon behar Osakidetza ez ba-dira kolektibo zaurgarri batekoak. Zaurgarritzat 70 urtetik gorakoak, haurdun dagozanak, immuno-es-kasia daukienak, txertatu bakoak eta gaixotasun kronikoak (esate baterako, diabetikoak eta gaixota-

sun hepatoikoak edo gultzurrunetakoak) dituenak hartuko ditue.

Gabonetako oporren ostean, protokolo barriagaz bueltatu ziran umeak eskolara. Protokolo honek "atsedenaldietan eta aire libreko" jardueretan be mosukoa erabiltearen derrigortasuna ezartzen dau, jan eta edan edo ariketa fisiko intensoa egiten ez bada. Lekuak ondo aireztatzeko beharizana be azpimarratzen dau eta talde des-bardinetako ikasleak ez alkartzea ezartzen dau, "burbuilak" man-tenidutea, hain zuzen be. Kirolari jagokonean, inzidentzia handia danean, lehiaketak bertan behera ixten ditu protokolo barriak, entre-namentuak bakarrik mantenduz.

Bestalde, zapatutik, hilak 15, gehienez 2,94 euro pagauko da antigeno test bakotxa Euskal Herriko Hegoaldean. Espainiako Osasun Publikorako batzordeak ebatzi eban hilaren 13an, batetik, antigenoen testei trabea ipintea prezioan, eta, bestetik, 18 urtetik gorakoek bakunearen hirugarren dosia hartu ahal izatea.

Mobilizazinoak

Lehen Mailako Arretak daukan kolapso egoerea eta ospitaleetako gainkarga salatuteko SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak manifestazinoetara deitu dabe Bilbon, Donostian eta Gastei-zen urtailaren 23an, 12:00etan. Sindikatuen arabera, Osakidetza "baliabide, antolakuntza eta plan-gintza barik dabil egiten aurre pandemiaren seigarren olatuari" eta Lehen Arretaren kolapsoaren ondorioz, ospitaletan lan-karga na-barmen handitu da. Osakidetza-zen egoera larria salatuteko, herritarrei manifestazinoetan parte hartzeako deia egin deutsee sindikatuok.

Bezperan, urtailak 22, 17:00etan, beste manifestazino bat egongo da Bilbon, COVID pasaportearen kontra Bizitza Plataformak deituta. Izan be, pasaportea ez dau trans-misino komunitarioa eteteko balio eta herritarrak maila bitan zatituten ditu, diskriminazinoa eraginez.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Seirehun bat lagun batu ziran salbuespeneko espetxe politikea amaituteko eskatzeko

Urtailaren 8an, Sarek deituta, Arratia, Ubide eta Zeberion, Euskal Herriko dozenaka herri eta auzotan lez, mobilizazinoak egin ziran salbuespen legediagaz amaituteko eta euskal preso, igeslari eta deportaduen eskubideak aldarrikatzeko.

Erredakzioa

Arantzazun, 45 lagun inguru; Areatzan, 80; Artean, 37 lagun; Bedian, 10; Diman, 100 lagunetik gora manifestazinoan; Igorren, beste 100; Lemoan, 70 inguru; Ubiden, 30 lagun; Zeanurin, 75 eta Zebe-
rion, 40 lagun batu ziran alkarretaratze zein mani-festazinoetara. Aldarrikapena eta jaia izan zan leku askotan. Holan, Arantzazun, amaieran Hertzainak-en 564 kantua abestu zan akordeoi eta gitarrean laguntzeagaz; Areatzan, konzentrazinoaren ostean txitxiburduntzia eta musikea egon ziran; Igorren, txis-tulariak egon ziran eta Lemoan, alkarretaratzearen ostean, Danilo eta Ayaren kontzertua egon zan.

Aldaketearen lehen zantzuak

2021ean, espetxe politikari jagokonean, "aldaketearen lehen zantzuak" ikusten dirala dinoe antolatzaileek eta

oingo urtean "espetxe politika barri bat oinarri izatea" espero dabe. Ha-ta guzti be, hau hasikerea baino ez dala jotzen dabe bildu ziranek. "Oindino euskal preso-
en %50a Euskal Herrikan kanpo diran espetxeetan dago. 3 gradua eskuratzeko edota urtekera baimenak eta bal-dintzapeko askatasuna eskuratzeko blokeo sistemiko baten aurrean aurkitzen gara. Larri gaixo dagozan 19 preso dagoz euren osasunerako eskubidea urratua daukienak. Eta zer esanik ez, adinduak diran preso-
en edota motxiladun haurren eskubideei jagokienean".

Presoen eskubideak betetzea alkarbizitzarako ezinbestekotzat jotzen dabe. "Alkarbizitza ezinezkoa izango da salbuespen legediak eragindako eskubi-de urraketa desagertzen ez bada. Eta bide berean, etxeratze prozesua gauzatu daiten eta espetxe-politikan hain beharrezkoa dan erabateko aldaketa emon daiten, ezinbestekoa da alkarbizitzaren eta bakearen bidean aurrera egitea".



Ubideko argazkia goian, Dimakoa erdian eta Zeberiokoa behean.

LEMOA

Barreterapia eta smartpohne eta tabletari etekina aterateko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik dago

Erredakzinoa

Lemoako Udalak ikastaro bi ipiniko ditu martxan zezeilean; *Barreterapia* eta *Zure tableta/ smarphone-ari etekina ateratzeko tailerra*; hain zuzen be. Izen emotea urtailaren 18ra arte egin daiteke Udaleko www.lemoa.net webgunean.

Barreterapia ikastaroa zezeila-ren 3tik aprilaren 7ra arte izango da, eguenetan, 19:00etatik 20:30era, 15 ordu guztira. Saioak Tipirrikan, lehengo liburutegi zaharrean, izango dira. Prezioa 24,75 eurokoa da Lemoan errol-

datuentzat; langabe eta ikasleen-tzat 12,37 eurokoa.

Ikastaroaren helburuetako batzuk dira estresa, ansiedadea eta depresinoa murriztea, ilusino eta motibazioa sustatzea, oreka fisiko, mental, emozional eta espiritualak aurkitzea eta blokeo emozionalak askatzea, besteak beste.

Tableta eta smartphone-ari etekina

Tableta edo smartphonari etekina ateraten ikasteko ikastaroa zezeila-ren 2an hasi eta aprilaren 6ra arte luzatuko da, eguaztenetan izango da, 19:00etatik 22:00eta-



ra, 30 ordu guztira. Prezioa 49,50 eurokoa da Lemoan errol-datuentzat, 24,75 langabe eta ikasleentzat. Kotxepin Kultur Etxean izango dira eskolak.

Ikastaroaren helburuak, gailu mobikorrerako maneju osoa, erabilera, egunerokotasunerako aplikazioak bilatzea, instalatzea eta erabiltea eta Internet bidez erosteari bildurra kentzea.

AREATZA

Loditasuna perspektiba politikotik landuko dau Mijo Lizarburuk Areatzan

Erredakzinoa

Loditasuna politikoa dala dino Mijo Lizarburuk eta hori azaltzeko berbaldia egingo dau urtailaren 28an, 17:00etan, eta hurrengo egunean lodifobiaren gaineko tailerra gidatuko dau 10:00etatik 14:00etara, Areatzako udal-etxean, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta.

Berbaldi eta tailerraren bidez, loditasuna perspektiba politiko

batetik lantzeko proposamen teoriko eta praktikoak egingo dira. Alde teorikoan lodifobiaren zuztarrak landuko dira, konexino feministea, antierrazistea eta antikapitalistea eginaz. Tailerretan, beste gauza batzuen artean, biolentzia medikua, autoestimua eta errua landuko dira.

Izena, Arratiako Udalen Mankomunidadean edo Arratiako udal-letxeetan emon daiteke hilaren 21era arte.





Karmengo Ama Ikastetxea
AMOREBETA-ETXANDI



ETORRI HAZI
ETA GUREKIN

pertsonagintzan



Hurbiltasuner...
Konfiantzaraz...



Erdu!

94 673 09 35

cmtdazkaritza@karmengoama.eus

www.karmengoama.eus



LEMOA

Bazkidetzeko kanpaina abiatu dau Kultur Etxeak

Erredakzinoa

Kultur Etxeko bazkidetza kanpaina ipini dau martxan Lemoako Udalak Kotxepin lagun eta Kotxepin txiki izenakaz. Kotxepin Kultur Etxeko lagun edo bazkide egi-ten diranek %30eko deskontua izango dabe emonaldi guztietan. Bazkidetza www.lemoa.net web-

gunean egin daiteke. Umeentzako dagoan kultur eskaintzea kontuan hartuta, umeei be bazkide izateko aukerea emon deutsee, Kotxepin txiki bazkide-tzeagaz. Hamahiru urte artekoek, 10 euroko kuota daukie urtean; 14 urtetik gorako Kotxepin lagunek, barriz, 20 euro pagau behar dabez urtean.

KOTXEPIN LAGUN

Izena Nombrea:
Abizenak Apellidos
Identifikatzailea Identificador
Urtea Añu



KOTXEPIN TXIKI

Izena Nombrea:
Abizenak Apellidos
Identifikatzailea Identificador
Urtea Añu



**Egin zaitez bazkide!
¡Abónate!**

Bazkidetza txartelak salgai urtarrilaren 10etik aurrera
Abonos a la venta a partir del 10 de enero

Bazkidetza Abonos
www.lemoa.net



ARANTZAZU

Zaharretxeetako negozioa azalduko dau Ahoztar Zelaietak Kultur Gunean

Erredakzinoa

Noka talde feministeak antolatuta, urtailaren 18an, 19:00etan, Ahoztar Zelaieta ikerketa kazetaria Arantzazuko Kultur Gunean egongo da *Residencias SA El negocio de los cuidados en Euskal Herria* liburua aurkezten eta negozio hori azaltzen. Zelaietak liburuan azaltzen dauanaren arabera, kasu batzuetan %25 inguruko errentagarritasunagaz, Euskal Herriko zaintza-sektorea, 30 urte pasatxoan, eskrupulu bako multinazionalak hartu dabe. Urtero milioika euro fakturatzen ditue, bezeroak edo erabiltzaileak espekuletako balio bat dira eurentzat, eta zaintzaileak prekarizau egiten ditue, gastuak optimizetako. Prekarizazino hori, euskal "oasian", administrazio publikoaren, alderdi politiko jakin batzuetako arduradunen eta sektoreko konpainien arteko interes gurutzatuek nabarmendutako pribatizazinoen eskutik joan da.



Ikerketa honetan Zelaietak argi itxi dau nor da nor sare klientelar honeetan eta legez kanpoko jardunbideak azaleratu ditu: egoiliarren aldeko tratuak, tratu txarrak, hileta-komisinoak, salaketak langile falteagaitik, gardentasun falteagaitik, Covid tasak, maskarak kobrotea eta abar.

BEDIA

1964 eta 1966 artean Bediako eleizan adinbakoei egindako sexu abusuak ikertuko ditu Bilboko Eleizbarrutiak

Erredakzinoa

El Pais egunkariak 2021eko abenduaren 19an *Espainiako Eleizan adin txikikoei eragindako abusuenguruko txostena* kaleratu eban. Han, 1950eko eta 1990eko hamarkaden bitartean, Espainiako Eleiza katolikoak adin txikikoei egindako sexu abusuaren 251 kasuren zerrendea agertzen da. Bilboko Eleizbarrutiari jagokozan bost kasuen artean, 1964 eta 1966 artean, Bediako San Joan Batailatzailaren eleizan gertatutako kasu bat be agertzen da zerrendan. Bost sexu abusu kasuok argitzeko ikerketa bat zabaldu dau Bilboko Eleizbarrutiak.

Sexu abusuaren prebentziorako batzordea

El Pais egunkariaren txostenaren aurrean, Bilboko Eleizbarrutian sexu abusuaren prebentziorako Batzordeak oharra atera eban urtailaren 4an. Bertan, kasuok argi-

tzeko ahaleginak egingo dituala jakin arazoten dau eleizeak "gertatu ahal izan dan edozein abusu kasu argitzeko ahaleginagaz bat egiten dogu, batez be, helburu modura egia bilatzea baldin badau eta biktimen preminen zerbitzura badago eta salatutako kasuak ez errepikatzea lortu gura bada", eta ikerketea zabaltea ebatzi dau. Horretarako, txostenean agertzen diran edo beste edozein kasuren barri euki leikien personei eskatzen deutsee Batzordeagaz hartu-emonetan ipinteko, eta edozein informazino konfidentzialtasun osoz erabiliko dala dinoe Batzordetik. Biktimei akonpainamentua be eskaintzen deutsee eta "holakoak barriro ez gertatzeko neurriak jarteko ahaleginean jarraituko" dauala Bilboko Eleizbarrutiak dinoe. Batzorde hau 2019ko garagarri-laren 31n eratu zan adin txikikoen babeserako eta sexu abusuaren prebentziorako.

BEDIA

Bediako ondarea ezetuten emoten dauan bigarren liburuxkea atera dau Labayru Fundazioak

Aspalditik dabiz Labayru Fundazioa eta Bediako Udala herriko ondarea dokumentau eta jasoten. Bideoetan jasota egoana, oin liburuxka formatoetan dabil argitaratzen.

Erredakzinoa

Igazko zezeilean, Eroso-Ugarte eta Ereñoko ondarea jasoten ebana argitaratu eban eta oin Bedia oinez ezagutzen. Elexaldetik Barroetara izenburuagaz, bigarren ibilbidea jasoten dauan liburuxkea banandu da etxetan. Hirugarrena aurten egiteko asmoa azaldu deutso BEGITURI Igone Etxebarria Labayru Fundazioko zuzendari eta Bediako zinegotziak. Bedia ezetuten emoteko hiru bideo egin ziran oin urte batzuk, eta oin hiru liburuxka egiten dabiz, oinez ibiliz ondarea ikusteko aukerea emoten dabenak. Ibilbide bakotzeko liburuxkeagaz batera, bideoarako sarbidea eskaintzen dauan QR bat be badago. Lehenengoa Ereñoraino doan ibilbidea da, Eroso-Ugarte eta Utxarain igarota, igaz argitaratu zana; oingoa, bigarrena, Elexalde, Jauregi, Ibarra eta Barroeta auzoetatik pasetan dana da eta hirugarrena, aurten egiteko asmoa

dagoana, Mugartatzakoa izango da. Liburuxka honeetan baserriak, errota, ermitak, ortuak eta bizimodua eta familia motak jasoten dira, besteak beste.



UBIDE

Ibilbide historikoa antolatu dau Parketxeak

Erredakzinoa

Urtailaren 30ean, domekea, Ubideren historia ezetuteko aukerea egongo da, Joxan Pagolak gidatutako herritik zeharreko ibilaldian. Bisitea Areatzako Parketxeak antolatu dau eta alde zaurretik emon behar da izena gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonon. Ubide Arratiako herririk txikiena da, Arabako mugan dagoana, baina historia luzea dauka. Zeanuriko elizatearen auzoa izan zan Ubide XVI. mendean banandu zan arte. Ordukoa da San Juan Bautista eleizea, 1540 urtean sortutakoa, herria Zeanuritik banandutean. Herriaren jatorria sasoi bateko burdinoletan dago; izan be, Zuazola, Aurtenola, Sartenera eta Ubide bera be burdinolak

izan ziran. Horrez gain, Gaztela eta Bizkaiko jauregariaren arteko merkataritza igarotzen zan bide garrantzitsu baten ondoan egoan. Bide hori, kaltzada hori, oindino ikusi daiteke leku batzuetan. 1936ko Gerra Zibilean be leku garrantzitsua izan zan Ubide. Izan


be, Errepublikaren aldeko zati-tian geratu zan eta lehen Eusko Jaurlaritza sortu zanean, Bizkaiko hegoaldeko muga zan ejerzito frankistearen aurrean. Frankisten IV. brigadak, Ubiden hasi eban Bizkaia menperatzeko erasoa 1937. urteko udabarrian.



LANGABEZIA DATUAK

Itxialdiaren eragina langabezian gainditu dau Arratiak

Eskualdeko langabezia COVID-19aren aurreko langabezia tasetara heldu dala, pandemiaren eragina gaindituta, ondorioztatu dau Errota Fundazioak egindako ikerketeak. Bere datuen arabera, 2020ko urtailan, 659 lagun egozan lan barik; 277 gizonezko eta 382 andrazko. 2021eko abenduan barriz, 611 ziran lan barik egozanak; 284 gizon eta 327 andra.




Erredakzinoa

Holan, langabezia tasak, puntu erdi bat egin dau behera: 2020ko urtailan %8,85ean egoan eta 2021eko abenduan %8,36ean. Fundazioak egindako ikerketeak, Arantzazu,

Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuri hartu ditu. Errotaren txostenaren arabera, COVID-19ak eragindako itxialdiaren eraginez, langabetu kopuruak nabarmen egin eban gora 2020ko martitik aurrera, %10,90era ai-

legauz eta 2019ko beheranzko joereari amaierara emonez. Goranzko joera hori 2020ko udagoienera arte luzatu zan eta hortik aurrera datuak astiro-astiro hobetzen joan dira, pandemiaren aurreko egoera hobetuz langabetu kopuare



gokonean. COVID-19a baino lehen Arratiako langabetuaren profila 45 urtetik gorako zerbitzu sektoreko andrea zan. Oin be, andrak segiduten dabe kaltetuenak izaten, baina adin tartea jaitzi egin da


eta gehiengoa 25 eta 44 urte bitartekoa da. Gizonezkoen kasuan barriz, 45 urtetik gorakoak dira lan barik dagozan gehienak. Nahiz eta herriz herriko datuen arabera desbardintasunak egon, Arratiako udalerrien batez bes-

tekoa kontuan hartzean baldin badogu, andren langabezia tasa gizonezkoena baino %1 altuagoa da; 2020ko bagilean diferentzia hau ia %4koa izatera heldu zan. Dana dala, azken datuen arabera, dibergentzia gero eta txikiagoa da.

Sektoreka

Sektoreei jagokienean, Arratiako langabetuen %58a zerbitzu sektorekoak eta %19a industria sektorekoak dira. Joera hau Bizkaia eta Euskal Autonomia Erkidegokoagaz bat dator. Aztertutako epean, langabe gixiango dagoz ia sektore guztietan aurretik enplegua izan ez daben kolektiboa kenduta; honeek 82tik 86ra pasau dira eta. Nekazaritzan,

langabeak 20tik 13ra jaitzi ziran; industrian 122tik 119ra; eraikuntzan 39tik 40ra eta zerbitzuetan 396tik 353era pasau ziran. Aldi baterako Enplegu Erregulazino Espedienteei jagokienean, barriz, pandemia hasi zanetik, Arratian, 1.705 ABEEE eskari egin dirala, %86a 2020 urtean eta %14 2021 urtean, emon dau jakitera Errota Fundazioak.











Herriz herri

Arratia mailan langabezia tasa txikitu egin bada be, ez da herri guztietan modu bardinean izan eta badagoz langabezia tasa handiagoagaz amaitu ebenak 2021 urtea. Holan, Arantzazuko langabezia tasa 2020ko urtailan %8,5 zan eta 2021eko

abenduan %9,63; Diman, %6tik %7,57ra pasau zan eta Zeanurin, %5,8tik %6,50era. Beste herrietan barriz, behera egin dau tasak; Areatzan %8,9tik %8,01ra pasauz; Artean, %9,5tik %7,23ra; Bedian, %11,3tik %9,29ra; Igorren %10,9tik %10,35era eta Lemoan %9,9tik %8,34ra.





Etorkizuna beste era batera
begitu teko eta **2022** der **2** ziteko
urtea.

PELOTEA

Eneko Artarazek irabazi dau Bizkaiko Eskuz Binakako Txapelketea

Aurrelari zeanuriztarrek Mañariako Aingeru Bernaolagaz batera irabazi dau jubenil mailako txapelketea, partidurik galdu barik gainera.



Eneko Artaraz zuriz eta txapelagaz.

Erredakzinoa

Urri lehenengoan hasitako torneo abenduaren 18an amaitu zan Sopelan, 22-12 irabazi eben Galdakaoko Ariznabarrena eta Arroitzaren aurka.

BEGITURI eskainitako alkarrizketan Artarazek azaldu dauanez, erraz egin dabe aurrera txapelketan "nahiz eta batzuetan justu-justu ibili". Izan be, txapelketatik kanpo geratutako hurbil egon ziran finalurrekoan. Markinakoen kontra jokatu eben Mañarian finalurrekoa, 22-21 irabazi eben partidua, asko burrukatuta. Izan be, 14-21 galtzean joanda be, burua altxau eta falta ziran zortzi tantuak egitea lortu eben hutsik egin barik. Markinako bikoteak oso ondo jokatu eban hasikeran, baina Artarazek eta Bernaolak itxaroten jakin eta aurkariak kantsauta ikusita, partidua amaieraren jaun eta jaube egin ziran. "Ondo kostauta baina azkenean

eurak baino arinago heldu ginan 22ra" adierazo dau Joko Alai klubeko aurrelariak.

Finalean barriz, hasikeratik lortu eben markagailuan aldea ateratea: "Zazpi eta huts irabazten hasi ginan eta distantzia hori mantentzea lortu genduan". Ondo eta serio jokatu, Galdakaoko bikotearen akatsak aprobetxatu ebezan merezidutako txapela lortzeako.

Oin Euskal Liga jokatu dago Artaraz, bikote bardinagaz. Lehenengo partidua irabazi ditue, atzenengoan, urtailaren 15ean Donostian, 22-17 nagusitu ziran. Beste hiru partidua jokatu dabez hurrengo asteetan. Talde bakotxetik, bikote bik lortuko dabe finalurrerako pasea, hori da Artarazen helburu nagusia, pausuz pausu aurrera egitea. Hurrengo urtean barriz, gazte txapelketak itxi eta nagusiakaz batera jokatu dau Artarazek, maila bardina mantentzeko konpromisoa hartu dau.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A taldeak hiru hilabete eta gero irabaztea lortu eban

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia A taldeak 8-0 irabazi eban hilaren 8an Urbietan Nueva Montaña talde kantabriarraren kontra. Urriaren 10ean jokaturako bosgarren jardunalditik egon dira garaipenik lortu barik. Baina urteko lehen partiduan, sailkapenean atzen postuan dagoan eta punturik ez daukan taldearen kontra lortu eban irabaztea hiru hilabete beranduago. Añorgaren kontra hilaren 16an jokaturakoa ostera 3-0 galdu eban Arratiak. Datorren partidua Oiartzun taldearen kontra jokatu dau Igorren hilaren 22an, 15:30ean. Hamabost jardunaldiren ostean zortzigarren postuan dago Arratia A, 18 puntugaz.

Andrazkoen Arratia B taldeak 0-5 galdu eban hilaren 8an Urbietan. Hilaren 15ean ostera Pauldarrak B taldearen kontra ziran jokatzekoak, baina COVIDa dala eta partidua atzeratu egin zan. Datorren partidua hilaren 23an jokatu dau Arratia Bk Sestao River taldearen kontra hilaren 23an, 10:30ean Igorren. Hamalau jardunaldiren ostean hamaikagarren postuan dago Arratia 15 puntugaz.

Gizonezkoen Arratia A taldeak partidua bi jokatu ebazan urteko lehen astean, hilaren 6an Astrabuduakoren kontra 1-0 irabazi

eban Igorren eta 9an, bana bardindu eban etxetik kanpo Zallaren kontra. Atzen partidua Loiu A taldearen kontra jokatu eban etxetik kanpo hilaren 16an, eta partidua hori be bana bardindu eban. Datorren partidua Iturrigorri A taldearen kontra jokatu dau Urbietan hilaren 22an, 18:00etan. Arratia A bosgarren postuan dago 37 puntugaz, hogei jardunaldiren ostean.

Arratia Bk ostera hilaren 8an jokatu eban Igorren, San Miguel taldearen kontra, partidua banakoagaz amaitu zan. Hurrengo astegienean Arratia Bk deskantsua euki eban. Datorren partidua Iberlanda taldearen kontra jokatu dabe Urbietan hilaren 23an, 12:30ean. Hamabost jardunaldiren ostean Arratia Bk lider segiduten dau 34 puntugaz.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobi taldeak hilaren 9an arrastian jokatu eban Orduña taldearen kontra etxetik kanpo eta 0-2 irabazi eban. Hilaren 15ean Arlonagusian Etxebarri A talde lidenaren kontra jokaturakoa ostera bana bardindu eban. Datorren partidua Solokoetxe A taldearen kontra jokatu dau hilaren 22an, 16:00etan etxetik kanpo. Hama sei jardunaldiren ostean bigarren postuan dago Lemoako Harrobi 34 puntugaz.



Andrazkoen A taldearen Nueva Montañaren kontrako partidua.

PELOTEA

Danel Elezkano EPELen Binakako Txapelketearen lider da Zabaletagaz

Erredakzinoa

Lau aste falta dira Binakako Txapelketearen sailkapen fasea amaitutako eta momentuz, Elezkano II.ak eta Zabaletak osotutako bikotea bide onetik doa finalurreko partiduetan parte hartu ahal izateko. Lehenengoak dira sailkapenean, atzen partidua 7-22 galdu baeben be. Bederatzi partidutik zazpi irabazi ditue eta 40 puntuko koefiziente positiboa daukie. Bigarrenak dira Laso eta Imaz, sei partidua irabazita eta 27 puntuko koefizienteagaz.

Halanda be, urtailaren 15ean Irribarria eta Rezustak osotutako bikotea nagusitu zan Zumaiako Aitzuri frontoian. Jokoaren eritimoa markau eben, Elezkano II eta Zabaleta aukera barik itxita. Lehenengo tantuetatik hasita euki ebezan zailtasunak, baina markagailua alde txikiagaz mantentzea lortu eben. Baina 4-6tik aurrera Irribarriak protagonismoa hartu eta atzean itxi ebezan liderrak, 5-15ean ipini zan markagailua eta gorriak ez ziran burua altxetako gai izan.

7-22 amaitu zan Elezkano eta Zabaletak txapelketa osoan jokaturako partidurik txarrena. Hurrengoan Altuna III eta Martijaren kontra lehiatuko dira Iruñeko Labriten, urtailaren 22an.

Promozino maila

Oier Etxebarria igorretarra be badabil Binakako Txapelketan, baina promozino mailan. Zabalagaz batera, hirugarrenak dira sailkapenean, finalurrekoak jokaturako aukerakaz momentuz, bost aste falta dira sailkapen fasea amaitutako. Honeek be irabazi barik urten zirak hilaren 15ean Zumaiatik, Salaberria eta Erostarberen kontra neurtu ziran eta 11-22 galdu eben.



Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizidadea diseinatzen deutsu.

Publicidade eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana. Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu (beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA

Diseinua + 4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA

Diseinua + 4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publicidadea:

649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.

MENDIA

Beheko kanpamentua itxi eta Samagaunen dagoz Txikon eta espedizinoa eguraldi hobearen zain

Urtailaren 8an, kanpamentuaren %60 desmontau eta taldearen parte bat helikoptero bitan bajatu zan Katmandura eta beste kide batzuk oinez Samagaunera.

Erredakzinoa

Aurreko egunetako edurte handiek eta edur-jausiak izateko arriskuek behartu eben ebatzia. "Eusten saiatu gara. Oinarrizko Kanpamentuan salbu egoteko egin dogu lan, baina metatutako 3 metro baino gehiagoko edur-rrak, edur-jausiak izateko arriskuak (Europako eskalan 5. maila) eta datozen egunetarako edur gehiagoren iragarpenak handik aldi baterako urtetera behartu gaitu, gure segurtasuna babesteko", azaldu eban Txikon.

Edurra finkatu eta botatakoa mendiak xurgatzen dauan bitartean, gorputza oxigenaduteko eta indarrak berreskuratzeko ba-

lio izango deutso taldeari. Baita erregaia aurrezteko be. Beheko Kanpamentuan konsumiduten dan energia elektrikoa instalatuko eguzki plaketatik dator, baina suiteak egunero 30-35 litro keroseno behar ditu edurra urtzeko eta elikagaiak prestatzeko. "Gugaz lan egiten dauan tour-operadoreagaz Seven Summit Treks-ekin (SST), gitxi gorabeherako kalkulua egin genduan, eta espedizinoaren hasikera 1.500 litro eroan beharko genduzan egonaldi osoko konsumoa beteteko, astakeria bat. Hori dala eta, astero-astero hornitzea ebatzi genduan, preminen arabera, baina dagoan tenporaleagaz ezinezkoa da".



MENDIA

Onditz Iturbe: "Goranzkoetan indartsu egiten dot eta lortzean dot bentajea"

Onditz Iturbe mendi korrikalari errebelazinatza jo eban 2021ean aldizkari espezialdu batek. Izan be, irabazi edo bigarren egin dau parte hartu dauan mendi lasterketa guztietan. Urte asko daroaz atletismoan eta krosa be gustuko dau igorreztarak. Baita asfaltoan maratoi erdiak be.

Erredakzinoa

Korrikalari errebelazinatza jo zaitu aldizkari espezialdu batek, esan lei mendi lasterketetan topau dozula zuri ondoen egokitzen jatzun lasterketa mota, ezta?

Denporaldi polita egin dot bai eta gustura nabil mendian, baina oindino asko daukat hobetuteko, ze distantzia aldetik batzuk oindino luzeegi geratzen jataz, jaitzieretan teknikea hobetu behar dot... Egia da goranzkoetan ondo konponduten nazala eta orduan hor abantaila daukadala, baina. Bueno, gustura nabil.

Mendi lasterketak erakargarriagoak dira atletismoa baino?

Mundu desbardinak dira. Ni atletismoan, krosagaz geratuten naz. Eta krosaren aldean, giroa desbardina da mendi lasterketetan, beste giro bat dago, lasaiagoa. Nik ez dot igarten hainbesteko konpetitibidaderik. Eta inguruak be erakargarriago egiten ditu mendi lasterketak. Mendi lasterketetan topetan dozuzan paraje horreek kros baten ez dozuz topauko. Baina krosa be maite dot.

Zein distantzietan ibiltzen zara ondoen?

Maratoi erdi bat edo holan, 21 kilometro inguru, 25 kilometro asko jota. Hortik aurrera badaukat zer landu eta aurtengo erronketako bat hori da, distantzia luzeagoak landutea.

Oin arte egin dodan mendi lasterketarik luzeena Gorbea Suzien izan da, eta seguruenik segiduko dau izaten baina, 30 kilometroko lasterketetara hobeto preparauta ailegau gura dot.

Desnibela be landu behar da. Mendi lasterketak egiteko mendian entrenau behar da; kontua da gora eta behera ibiltzea. 2021ean aspektu hori hasi nintzan lantzen, sartu nebazan entrenamentu gehiago mendian desnibela landuteko eta hori be igarri egin da. Oingo urteari begira be segidu beharko da gora eta behera mendian.

Goranzkoetan hobeto ibiltzen zara, ezta?

Bai. Goranzkoetan ondo konponduten naz, indartsu tiraten dot gorantz eta lortzean dot bentaja



Onditz Iturbe.

bat, baina gero beheranzkoetan asko galtzean dot: ez daukat teknikarik eta bildurtia naz. Errespetaz noanez hor bentajea galtzean dot. Esaten dabe mendiko lasterketak beheranzkoan irabazten dirala... Zentzu horretan badaukat zer landu.

Zelan landuten dozu teknikea?

Ekana Zentroko Jokin Idirin da nire entrenaitzailea eta esan deusta aurten erronketako bat jaitzierak hobetutea danez, beragaz batera mendira joango nazala entrenamentu batzuk egiten hobetu neikezan puntuak landuteko. Esan behar dot oso gustura entrenetan dodala beragaz, bidea gozatu arazoteaz gainera, asko lagunduten deusta eta.

Kros eta mendi lasterketak bateragarriak dira? Batera egiten dozuz?

Mendi lasterketak urte osoan zehar dagoz, baten edo bestean topau ahal dozuz gura beste, baina egia da nik krosa amaitu eta gero erabiltzen dodazala mendi lasterketak denporaldia osotuteko. Krosa egiten dot eta behin hori amaituta mendia.

2021-2022ko denporaldian krosa aurreratu egin da: urrietan

hasi ginan eta urtail-zezeilean amaituko da. Urtaileko atzenengo astegoienean Espainiako Kros Txapelketa dago eta horregaz kros denporaldia amaitutzat emoten da.

Bizkaiko Txapelketa urtailaren 23an da eta Espainiako urtailaren 30ean. Bizkaikora joango naz eta Espainiako ez dakit, zalantzak daukadaz. Baloraten nago eta segun eta zelan nagoan joango naz ala ez.

Kros eta mendi lasterketarako entrenamentuak bateragarriak dira, baina krosak eskatzen dau erritmo altuagoa eta mendiak desnibel eta indar gehiago. Orduan, badago diferentzia. Baina aste barruan mendian entrenetako aukera gitxi egoten da: lan egin behar da, goiz iluntzen dau... Aste barruan asfaltoko lana sartzean dot eta astegoinetan entrenetan dot mendian.

Asfalto be gustetan jata eta asmoa da aurten be beste maratoi erdi bat sartzea.

Zeintzuk dira egingo dozuzan mendi lasterketak?

Ez dakit. Oporretan egon naz, atsedena hartzean eta ez dot egutegia begiratu be egin, baina Kolazinokoa bai egingo dot, duda barik.

BERTSOLARITZEA

Zeanuriko bertso saioaren 18. edizinoa hilaren 23an

Erredakzinoa

Aurten be, atzen 18 urteotan lez, eten barik, puntako bertsolariei entzuteko aukerea egongo da urtailaren 23an Zeanurin. Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga, Jon Maia, Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariak egongo dira bertan. Eñaut Intxaurragak jardungo dau gai-emoile lanetan. Frontoian da hitzordua, arrastiko seiretan. Saioa Zeanuriko Udalak eta Kultur Batzordeak antolatu dabe. Bizkaiko txapela irabazi barri dauan Nerea Ibarzabal da Zeanurin egongo dan bertsolarie-

tako bat. Bitan Euskal Herriko txapelduna izan dan Maialen Lujanbio eta behin izandakoa Amets Arzallus be izango dira Zeanuriko hitzorduan. Eurokaz, *Kantu bat gara* liburu-diskoa argitaratu barri dauan Jon Maia eta Zeanuriko bertso saioan beterano diran Sustrai Colina eta Unai Iturriaga be gongo dira, hirurak izan dira hainbat aldiz Euskal Herriko Txapelketan finalista. Iturriaga bitan izan da Bizkaiko Txapeldun eta Colinak be birritan irabazi dau Xilaba Bertsulari Txapelketea. Sarrerak egunean berean frontoian egongo dira salgai 17:00etatik.



IPUINAK

Ipuin erotikoen kontaketea egingo dau Ixabel Agirresarobek Lemoan

Erredakzinoa

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak 16 urtetik gorako gazte



eta helduentzako *Erotik, zerotik, berotik* ipuin kontaketa saioa eskainiko dau hilaren 27an, 18:30ean, Kotxepin Kultur Etxean. *Erotik, zerotik, berotik* saioak, batez be herri ipuinak jasoten ditu, Agirresaroberen umorezko ukituagaz. Kontalari usurbildarrak 30 urte daroaz umorean oinarritutako ipuinak kontetan. Denpora honetan, zabaldu egin da ipuin kontalarien publikoa. Izan be, hasikera baten umeentzako baino ez ziran izaten ipuin kontaketak, oin barriz, helduentzako ipuin kontaketak gero eta ohikoagoak dira.

KONTZERTUA

Bat edo hiru diskoaren aurkezpena egingo dau Amorantek Lemoan

Urtailaren 21ean, 18:30ean, Iban Urizarrek, Amorantek, egingo dau *Bat edo hiru* bere atzen diskoaren aurkezpen kontzertua Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Erredakzinoa

Zazpi abestik osotutako disko "ilun" hau 2019ko abenduan grabau zan. Heriotzeak abesti guztien gainean planeatzen dau, argia be egon arren hainbat abestitan. Tronpetea, pianoa eta loops-ak erabilten ditu disko sano original honetan. Diskoan, John Cazale aktoreari omenaldia egiten jako, Uxue Alberdiren letra bat dago, Bilintxen inspirazinoa ageri da eta Mikel Laboak ezagun egin eban Joxean Artzeren *Ama hil zaigu* testua moldatuten dau. Aitor Etxebarria EL_Txef_Ak ekoiztu dau Amoranteren disko hau.

Amorante
Iban Urizar irakaslea eta musikaria da. Izen artistikoa Rodrigo

Amarante musikari brasildararren eta Enrique Morente flamenko kantariaren abizenak nahastuz sortu eban. Hiru disko ditu kolean, *Amorante* (2016); *Manuela/Brueghel Zaharra* (2017)

eta *Bat edo hiru* (2020). Bizarra edo Mengele Quartet lango proiektu esperimentaletan hartu dau parte, eta Joseba Irazoki, Rafa Rueda edo Joseba Tapiagaz be egin dau behar.



Amorantek 2020an Diman emondako kontzertuko argazkia.

ANTZEZLANA

Atx teatroak *Lubaki lainotsua* antzezlan taularatuko dau Igorren

Urtailaren 22an, 20:00etan, izango da Lasarte Aretoan. Lan hau Atx teatroak bere 10. urteurrenean sortutako 10. proiektua da.

Erredakzinoa

Belaunaldien arteko talka eta munduaren inguruko ikuspegi desbardinak landuten dautz antzezlanak. Maren Basterretxeak, Miram K Marchantek eta Javier Barandiaranek egiten dabez aktore lanak.

Sinopsia
Izen bako gerrearen lubaki baten, soldadu beterano bat dago, bakar bakarrik, beste sasoi batekoa: baldintzarik bako militantzia eta diziiplina zorrotzekoa. Aspaldian ez dago ez batailarik, ezta etsairik be... badirudi dana bare-bare dagoala. Jeneralek "bakea" sinatu eben, tropak etxera bialdu ebezan aspaldi, baina ez eutsien erreleborik bialdu, eta jakina, errelebo barik ez dago postua ixterik.

Beterano hau gaur egungo sasoiarentzako oztopoa baino ez da. Bat-batean, zorioneko (edo zoritxarreko) egun baten

erreleboa jatorko. Eskarmentu bako soldadu gazte bat, bere bizitza labur osoan sekula ez dauana gerra izpirik ezetu.



MUSIKEA

Bihotz Gorospek bere *Bihotz anpuluak* eskaintzen ditu kontzertu intimo eta terapeutikoetan

Erredakzinoa

Bihotz anpuluak izeneko Youtube kanala sortu eban oin dala urte bete eta erdi Bihotz Gorospe abeslari igorreztarrek, hainbat bersino, baina batez be berak sortutako kantuak ezetuten emoteko. Mendi Film Festival-en ikusi ahal izan dan Itziar Zabala Dimako eskalatzailearen gainera *Amagana* dokumentaleko kantuak be Gorospek sortu ditu. Oin, zuzeneko hainbat emonaldi emoten dabil, *Bihotz anpuluak* izenpean. Bertan, dokumentaleko kantuak zein Youtube kanalekoak jotzen ditu igorreztarrek, Inun-en laguntzeagaz.

Noz hasi zan jira eta noz arte izango da? Zenbat kontzertu dira?

Lehenengo kontzertua urri lehenengoaren 26an izan zan Diman, AUMk antolatutako Arratiako andra sortzaileen azokan. Bigarren, Etxebarrin izan zan, abenduaren 2an, euskerearen astean, eta hirugarrena urtailaren 13an Zorrontzan. Momentuz ez daukat data gehiagorik.

Kontzertuaren titulua *Bihotz anpuluak* da ezta?

Bai. *Bihotz anpuluak* dira niretzako esangura berezia dituen kantu bilduma moduko bat. Transmittuten daben esentzia edo ideak maitasunaren ingurukoak dira eta horregaitik ipini deusat *Bihotz anpuluak* izena. Hitz joko bat da, nire izena eta

negar anpuluaren arteko hitz jokoa, hain zuzen be.

Kontzertuok bakarkakoak dira ala beste musikariren laguntzarik badozu?

Inun musikaria dator nigaz lagunduten. Oin arte ni egon naz berari lagunduten, eta sortu jatanean nire proiektua aurrera erroteko gogo, berari esan neutsan. Udan pentsau neban neure kantuakaz zeozer egiteko momentua zala eta hasikeratik eskatu neutsan laguntasuna Mikel Inunziagari, Inun-eri, laguna dalako, berak esperientzia handia daukalako, gitarrista eta abeslari oso ona dalako eta baliabide asko daukazalako... eta baiezkoa emon eustan. Orduan, nire kanta erakutsi neutsazan eta parte hartzean dau nigaz kontzertu honeetan, gitarra elektrikoagaz, perkusinoagaz eta abotsak sartuten.

Batez be zeuk sortutako piezak jotzen dozuz, ezta?

Bai. Kantu gehienak nireak dira; bi izan ezik. Momentuz kontzertuetan bersino bi sartu dodaz. Oin dala urte eta erdi edo urte bi sortu neban kanala Youtuben eta hor hasi nintzan bersinoak eta nire kanta batzuk eskegiten. Kontzertu edo emonaldi honeetan nire kanta kantetan dodaz baina kanal horretako bersino bi be hartu dodaz, niretzat kuttunenak izan diranak, edo zelan geratu drian gehien gustau jatazanak.

Amagana filmeko kantuak

be jotzen dozuz kontzertu horreetan?

Bai. Amaganako bildumako 3 kanta sartu dodaz. Itziar Zabalen kirol ibilbidea islatu behar zan kantuetan eta oso argi euki neban Baltzola izan behar zala protagonista nagusi bat; gero, Bizkaiko paisaiak agertuko zirana lez dokumental horretan, aprobetxau neban Bizkaiari omenalditxo bat egiteko kantuen bidez eta gero, hirugarren kantua izan da apur bat fusino bat, Euskal Herriko tradizionoko eta kanpoko beste korrante batzuen fusinoa, hain zuzen be.

Zelan joan dira aurreko kontzertuak?

Ni oso pozik geratu nintzan aurreko kontzertuakaz, azken finean niretzako izan dalako erronka bat. Beti egon naz hainbeste proiektutan sartuta, baina proiektuko protagonisteia izan barik. Izan naz proiektu horreetako parte, baina ez protagonisteia, eta kasu honetan, azkenean nire kanta dira eta nik daroat papel printzipala. Niretzako erronka bat izan da eta egia esan lehenengo kontzertuakaz gustura geratu naz.

Nik esango neuke kontzertu oso xumea dala, pretensio handirik bakoa, intimoa, kantu lasaiak dira eta areto txikietan entzuteko aproposak.

Ibilbide honetan aitatu gurako neukez Jose Miguel Atxa, Atxa Dimakoak lagundu deustalako bideoak egiten eta beti egoten

dalako lagunduteko prest. Baita Eduardo Gaviña, Yogurinha Borova be, laguna dalako eta nik askotan lagundu deusat bere proiektuetan eta laguntza eskatu neutsan eta argazkiakaz lagundu deusta. Udan geratu ginan eta egin eustazan argazki pilo bat eta horreek argazkiak nabil erabiltzen kontzertuen propagandea egiteko.



Bihotz Gorospe. Argazkia: Eduardo Gaviña "Yogurinha".

DUNBA


Peto Moreak

Lemoako Institutuko Naroa Lopez eta Aroa Ramirez

Lemoako Institutuko Peto Moreak taldean, gitxi gorabehera 16 partaide gagoz. Ikasturte honetarako hainbat helburu daukaguz. Garrantzitsuena da ikastetxean gertatzen diran egoera matxistei aurre egitea edo, behintzat, salatzea. Eurretako bat zemendiaren 25ean egindako jarduerak izan zan. Hona hemen egindakoa:

Urtero proposamen berberak ateraten dira batzarrak egin ondoren. Ikusten da ez dagoala emaitzik, ikasle askok ez dabe ulertzen. Ez jakie argi geratzen zemendiaren 25a zer dan eta zer

aldarrikatu gura dan. Aurtun, proposamen original hau ateratzen batzarrean eta idea ona iruditu jakun. Gure asmoa zan indarkeria matxistaren iceberg bat sortzea, bertan argi ikusteko zer motatako biolentziak dagozan: agerikoak eta ikusiezinak. Hau klaseetan azaltzeko galdera zuzen bat egin geuntsen ikasleei. Ea zer biolentzia mota dagozan euren ustez. Gehienek esan eben Ageriko atalean dagozanak: sexu-erasoak, erailketak, bortxaketak... Eta ikusita ikasgela guztietan hain gitxi ekiela, honeri buruz informazio gehiago emotea garrantzitsua zala ikusi genduan.



Gainera, era dinamikoan argi itxi genduan. Badakigu argi geratu jakiera,



informazioa emon ondoren, gaian interes handiagoa egoala ikusi gendualako.



Ha-ta guzti be, ikastetxean oindino egon badagoz egoera matxistak, txikiak badira be, hor dagoz. Adibidez, ikasle batzuen arteko begiradak eta komentario desatseginak sortu zirana. Argi ikusten danez, oindino lan handia geratzen jaku. Beraz, martiaren 8an, barriro be andren eskubideak aldarrikatzeko prest gagoz. Gora burruka feminista!

AGENDEA

URTAILAK 17
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Negu osoan zehar mendi ibilbide autogidatua: Larreder-Karkabitueta-Larreder. Goi mendietako antxinako lanbideak ezetuten. Zailtasun bajua. Eskatu informazio gehiago Parketxean. 94 673 92 79 eta *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus*.

Bonodenda kanpaina hilaren 31ra arte luzatu da. NAN baktzeko beste bonu bi erosi ahal dira. Estankoan dagoz salgai. 20 eurotan erosi eta 25 euroko erosketea egin ahalko da.

BEDIA

Kolazino Mendi Egunerako izen emotea zabalik *sportmaniacs.com* webgunean.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

Astelehenetik barikura 09:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:45era, zezeilaren 28ra arte, *Igorreko Eskola Bidea* erakusketea Kultur Etxeko erakusketa gelan.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Hilaren 18ra arte, izena emoteko epea *Barreterapia* eta *Zure tableta/ smartphone-ari etekina* aterateko ikastaroetan *www.lemoa.net* webgunean.

Kotxepin lagun eta, 14 urte arte, Kotxepin txiki bazkidetza kanpaina. Urtean 20 euro eta 10 euro hurrengo hurrengo pagau ezker, urteko jarduera guztietan %30eko deskontua *www.lemoa.net* webgunean.

ZEANURI

Hilaren 25era arte, Garbigune mobikorra aparkalekuan. Bota

daitekezan hondakinak: etxekotresna txikiak, sukaldeko tresnak, etxeko orioa, sakeleko telefonoak, kableak, pinturak eta disolbatzaileak, aerosolak, kutsatutako xurgatzaileak, tonerrak, tintazko kartutxoak, metalezko kapsulak, plastikozko kapsulak, pilak, CDak, DVDak, kaseteak eta erradiografiak.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Ni STEM Emakumea erakusketearen atzen eguna. Plazan.

URTAILAK 18
ARANTZAZU

19:00etan, Nokak antolatuta, Ahoztar Zelaietaren *Residencias SA El negocio de*

los cuidados en Euskal Herria liburuaren aurkezpena Kultur Gunean.

IGORRE

18:00etan, zezeila-aprila hiruilekoaren programazinoa zehazteko batzarra. Kultur Etxean. Proposamenak emailaz bialdu daitekez *kulturetxea@igorre.net* helbidera.

URTAILAK 19
ARTEA

18:00etan, Arteako guraso eskolea Roberto Aguado psikologoagaz *Vivir con un adolescente y sobrevivir en el intento* Kultur Etxean.

URTAILAK 21
AREATZA

Gorbeiako Parketxeak antolatuta, talo

tailerra umeentzat. Izena emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

LEMOA

18:30ean, *Bat edo hiru* Amoranteren diskoaren aurkezpen kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

URTAILAK 22
IGORRE

20:00etan, Atx antzerki konpainiaren *Lubaki lainotsua* antzezlan Lasarte Aretoan.

LEMOA

Goizean, Karabi zaharraren urteurrena. Hamaiketako Karabi zaharrear Harriketarrak Gazte Asanbladeak antolatuta.

URTAILAK 23
ARTEA

18:00etan, Kafrangak talde feministeak antolatuta, Zineforum feminista Catherine Corsiniren film bat Kultur Etxean.

IGORRE

17:00etan, zinea *Encanto*; 19:30ean, *El amor en su lugar* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

18:00etan, Zeanuriko bertso saioa. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga, Jon Maia, Amets Arzallus eta Sustrai Colina. Gai emoilea: Eñaut Intxaurrea.

URTAILAK 27
LEMOA

18:30ean, Isabel Agirresaroberen gazte eta helduentzako ipuin erotikoen kontaketea *Erotik, Zerotik, Berotik* Kotxepin Kultur Etxean.

URTAILAK 28
AREATZA

17:00etan, Mijo Lizarbururen *Lodifobia* berbaldia udaletxean.

ARTEA

19:00etan, Irakurleen txokoa *Karena* liburua Elaine Agirregaz.

BEDIA

Hilaren 30era arte, eski urtekerea Baqueirara. Udaletxe ondoan.

URTAILAK 29
AREATZA

10:00etatik 14:00etara, Lodifobiaren gaineko tailerra Mijo Lizarbururen eskutik udaletxean.

LEMOA

Gaztelekuak antolatuta, izotz pista urtekerea. Informazio gehiago *lemoakogaztelekue@gmail.com* helbidean.

URTAILAK 30
IGORRE

17:00etan, zinea *El valle de las linternas*; 19:30ean, *Mamá o papá* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako mendi urtekerea, Ilarratza (1.142 metro)-Abitigarra (1.165 metro).

UBIDE

Gorbeiako Parketxeak antolatuta, Ubide herritik ibilbide historikoa Joxan Pagolaren eskutik. Erdi Arora hurreratzeko aukerea, ohiturak eta erakin motak ezetu. Izena emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.



Ene Kantak taldea Igorreko Lasarte Aretoan izango da urtailaren 29an

Ene Kanta taldekoek umeentzako kanta jantzarriak, barriak eta umeentzako egokiak sortzean ditue. Batzuetan, abesti tradizionalak barriztau eta moldatzen ditue. Abesti baktzeko bideo bat dago, koreografia erraz bategaz, umeek jantzan egin dagien. Ene Kantakek sortutako kanta guztiak diskoetan dagoz bilduta.

Urtailaren 29an, 17:30ean egongo dira Igorreko Lasarte Aretoan, *Liluragarria, gorputz barrura goaz* ikus-kizunagaz etxeko txikienek ondo pasau dagien. Bete ezker beste saio bat egingo dabe goizean.

Sinopsia

Liluragarria, gorputz barrura goaz, Ene Kantaken atzen erronka da. Badakizue Enekok eta Nereak ze leku aukeratu daben oingoan abenturak biziteko? Bai, bai, ondo leidu dozue, gorputzaren barrura! Noren gorputzera? Hori bai ez dabela esango... Ez dabe liburu magikorik edo aitaren gutunik erabiliko abentureagaz hasteko, ez, ez, edabe bat baino. Gorputzaren barruan Lilu ezetuko dabe, zelula jator bat, eta garunaren eta gorputzeko hainbat organoren garrantziaz berba egingo dau. Asko daki-eta Liluk!

Badakizue gorputza osasuntsu izateko asko egin daitekela? Elikadura osasuntsua jagon adibidez, sano garrantzitsua da. Halanda be, Lilu aditua da zeliakian. Hori zer dan? Berak inork baino hobetu azalduko dau.

Gorputza makina bat da, baina danona ez da bardina. Batzuk Dravet izeneko gaixotasun arraro bat daukie adibidez, eta hori zer dan be Liluk azalduko dau.

Gorputzaz eta garunaz ikasiko dogula badakigu, baina ez pentsau, gorputzak berak be irakasten ditu beste gauza batzuk: adibidez, adiskidetasuna, bardintasuna edo ingurumenaren zaintza.

IPINI ZURE IRAGARKIA
BEGITUN!

Informazinoa: 649 979 115 eta inigoirua@begitu.eus

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK MINTZAPRAKTIKA SAIOAK
Mintzapraktika saioak euskeraz eta ingelesez bakarka zein taldeka (25 urtetik gorako lagunentzat). Telefonoa: 635 750 097.

SALTZEAN DOT
Soinu ekipoa salgai: Berhinger Xenyx 2442 FX mahaia, bozgorailu bi autoanplifikatuak Berhinger B300 eta hanka bi. Dana, 400 euroan saltzean dot. Deitu 657 707 725 telefonora.

SALTZEAN DOT
Ezcaray-ko arasea salgai, egoera eta prezio sano onean. Altuerea 2,10 metro, zabalera 2 metro eta sakonera 40 zentimetro. 615 708 238.

GARAJEA ALOKATZEN DOT
Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LANA INGELES IRAKASLE BILA
Ingelesa dakian persona baten bila

nabil, batxilergoko lehenengo mailan dagoan ikasle bateri klaseak emoteko. Interesdunek deitu 620 607 952 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ
Lehen Hezkuntzako ikasleentzat Matematika, Euskera eta Gaztelania klaseak emoten dira online eta aurrez aurre. Kontakturako telefonoa: 646 447 988.

KLASEAK EMOTEN DODAZ
3. eta 4. DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira Igorren; institutu ondoan. Informazio gehiagorako deitu edo WhatsApp-a bidali 608 381 984 zenbakira.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Mamá o papá* filmarako.

Nerea Barrenetxea (Lemoa)
Elias Artabe (Arantzazu)



2
Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Lubaki* lainotsua antzezlanerako.

Nerea Iruarizaga (Igorre)
Nekane Intxaurtza (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 19 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus





ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA




ikastolenelkartea

Txikiak handi egiteko hezkuntza osoa



HAZIA
(0-6 urte)



KIMUA
(6-9 urte)



EKIA
(9-16 urte)



IBAIZABAL
(16-18 urte)



MATRIKULAZIOA

Urtarrilaren 17tik 28ra arte

- Pedagogia eraldatzailea
- Ikastolako sukaldean prestatutako produktu ekologikoak, bertokoak eta sasoikoak
- Garraioa: Usansolo, Bedia, Lemoa, Igorre eta Zornotza
- Zaintza
- Eskolaz kanpoko ekintzak

📞 94 673 29 50

✉️ zornotza@ikastola.eus

🌐 www.andramarizornotzakoikastola.eus



LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



filippini
GENERATING SETS

Nilfisk

JCB

MANITOU
HANDLING YOUR WORLD

CTX CONTAINEX

TeknoDidaktika

HIKOKI

POWER PRODUCT
GENERGY

MASTER
SAFETY EQUIPMENT

INSTANT UPRIGHT
SAFETY EQUIPMENT